

Trio Latin Balkan

urriak 6, Ostirala, 22:30
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5,00 €

Musikari profesionalen osatutako taldea da Latin Balkan: Julian Cobzaru errumaniko akordeoi jolea, Angel Unzu euskal gitarista eta Julio Andrade venezuelako kontrabaxu jolea. Hirurak ere oso luze aritu izan dira musikaren munduan eta bertuosismoa nabaria da bakoitzaren kasuan. Estiloari dagokionez, balkanetako eta mundu latinoaren arteko fusiotik lortzen dena dela esan daiteke. Hiru musikarien artean Angel Unzu da ezagunena gure artean, Lezoko Musika Eskolan irakasle aritua baita. Iruñar honek 2 disko propio ditu eta 65 diskotan parte hartu du kolaborazio ugarietan.

Andrade berriz, 17 urterekin hasi zen musikaren munduan eta honek dituen alderdi ia ezberdin gehienak frogatu ditu. 1986ean hasi eta 1995era arte aritu zen musika klasikoan profesionalki. Venezuelan bi orkestra sinfonikotan aritua da: Orq. juvenil gran mariscal de ayacucho y la Orq. sinfónica Simón Bolívar, nahiz eta gero jazzaren mundura iritsi zen. Cobzaruri dagokionez, gauza bera esan daiteke, ibilbide luzeko musikaria, gaur egun kolaborazio ugarietan dabil.



Oskarbi

urriak 7, Larunbata, 22:30
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5,00 €



Duela bi urte Oskarbi bere kantu esanguratsuenak bildu zituen disko batean "Esperantzari lehio bat. 1966-2004". Bestalde, makina bat kontzertu eman ditu Oskarbi taldeak musikari eskainitako berrogei urteko lana Euskal Herrian zehar aurkezten.

1966an sortu zen Oskarbi taldea, eta 1984an plazaetatik erretiratu zenara arte lau kantuko single bat eta bost disko luze kaleratu zituen; 65 abesti guztira. Taldea Iñaki Maritxalarrek, Jose Luis Trekuk, Beronika Ondikolak, Bakartxo Maritxalarrek, Maite Aizkorretak, Karlos Ruizek eta Gontzal Iñarrak osatzen dute. Nahiz eta bere ibilbidean hamabost bat lagun igaro ziren taldeak; horien artean Kepa Garbizu (egun Lezoko alkatea) eta Antton Valverde. Oskarbi 1984an erretiratu zen ofizialki. Taldeak Gandiagaren hitz ugari musikatu zituen baita JosAnton Artze eta Xabier Leterenak ere, eta Oteizak lehenengo disko txikiaren azala egin zien.


Iñigo Arizmendi

Urriak 2tik 27ra

09:00-13:00 (Astelehenetik-Ostiralera)
KULTUR ARETOA (Donibane kalea 2)

Donostian jaio, baina betidaniko Errenteriarra izaki, prentsa argazkilaria da 18 urte geroztik. Errenteriako Asociación Fomento Cultural elkartearen kidea eta hainbat erakusketa antolatuta eta egin ditu bertan. Bere ibilbide profesionala oso emankorra da eta bere zaletasunak eta gaitasun profesionalak dagoeneko makina bat sari jasotzea ere eraman ditu. Besteak beste askoren artean hauek garrantzitsuenak:


- Bizkaia Club Cine Foto-k antolatutako Euskal Herriko Inauteri-argazkien XIV. txapelketan finalista eta saritua 1999an.
- Arabako Argazkilari elkartearen antolatutako nazioarteko argazki txapelketan, finalista 1999an.
- Tulle-ko III Nazioarteko argazki jaialdian hirugarren saria 2002an.



Lezoko zine agenda

URRIA OCTUBRE

2006



zine ma 800



Lezoko Unibertsitateko
Udala

AUDITORIUMA

Gezala

URRIA - octubre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 5	22:00	DÍAS DE GARAGE
LARUNBATA 7	16:30	PROP & BERTA
OSTEGUNA 12	22:00	¿BAILAMOS?
LARUNBATA 14	16:30	SHIN CHAN ETA SAMURAI TXIKIA
OSTEGUNA 19	22:00	HABANA BLUES
LARUNBATA 21	16:30	DORAEMON ETA JOSTAILU LANTEGIA
OSTEGUNA 26	22:00	LOS CHICOS DEL CORO
LARUNBATA 28	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON (05)


KULTUR HOTSAK

OSTIRALA 6	22:30	JAZZ KONTZERTUA TRIO LATIN BALKAN
LARUNBATA 7	22:30	JAZZ KONTZERTUA OSKARBI
14tik 27ra ASTELEHENETIK OSTIRALERA	09:00-13:00	ERAKUSKETA IÑIGO ARIZMENDI

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



DÍAS DE GARAGE

Australiako rock talde baten istorioa du oinarri filme honek. Rock & Roll munduan lekutxo bat egin nahian dabilzan gazte batzuk dira protagonis- ta. Helburuek bitartekoak justifikatzen dituztela pentsatzen duten gazte hauek oso bide 'sui generis'-ak erabiliko dituzte beren nahiak lortzeko. Munduko azken muturreko zine independentearen adierazgarri oso inter- resgarria. Eszena batzuk oso barregarriak dira eta kreditu tituluen aurkez- penaz aparteak.

2002, Australia 🕒 105 min. 🎬 Proyas, Alex.
👤 Kick Gurry, Maya Stange, Pia Miranda, Brett Stiller, Russell Dykstra.



¿BAILAMOS? - SHALL WE DANCE?

Dantzaren inguruan oinarritutako komedia erromantikoa. Antzezleak eza- gunagoak izatea ezinezkoa: Jennifer López eta Richard Gere. Lanbide arrakastatsua, familia harreman onak, baina egunerokotasunean ito egin- go da Gerek antzeztzen duen pertsonaia. Irtenbidea dantzan aurkituko du. Halere, ez du bere ingurukoek jakiterik nahi bere gizon ospea galtzeko beldurragatik. Edonola emaztea zerbait gertatzen ari dela konturatzen da eta ikertzaile pribatua kontratatuko du existitzen ez den 'susmoa' bilatze- ko...


2004, EEBB 🕒 106 min. 🎬 Peter Chelsom.
👤 Richard Gere, Jennifer Lopez, Susan Sarandon, Lisa Ann Walter.



HABANA BLUES

Benito Zambrano, Lezon ikusteko aukera izan dugun, *Solas* peliku- la arrakastatsurekin ezagutu genuen. Bere hurrengo pelikula ikus- teko sei urte itxaron behar izan ditugu. Oraingoan Kuban kokatzen duen rock talde baten inguruko istorioa dakarkigu. Arrakasta duen talde bati iriatik haratago bere musika ezagutarazteko aukera eskaintzen die diskoetxe handi batek. Halere prezioa garestia da: beren abestietan erregimen politikoaren aurkako mezuren bat sart- zea eskatuko diete.

2005, Espainia, Kuba 🕒 115 min. 🎬 Benito Zambrano.
👤 Alberto Yoel, Roberto Sanmartín, Yailene Sierra, Tomás Cao.




LOS CHICOS DEL CORO

Gazteak berrezitzeko zentroko Rachin zuzendariak metodo gogorrak erabiltzen ditu hurrekin. Mathieu langabezian dagoen musika irakas- lea guarda moduan hasiko da lanean aipatu zentroan. Mathieu bera ez dago oso ados zuzendariaren moduekin eta haurrengana hurbilt- zen saiatuko da musika tresnatzat hartuta. 2005ean ospe handia hartu zuen pelikulak, Oscarretako izendatua izan baitzen atzerriko hizkuntzean egindako pelikulen atalean.

2004, Frantzia 🕒 95 min. 🎬 Christophe Barratier.
👤 Gérard Jugnot, François Berléand, Kad Merad, Jean-Paul Bonnaire, Marie Bunel eta Jean-Baptiste Maunier.

Gezala
AUDITORIUM
Lezo


LARUNBATA • sábado



PROP & BERTA

Propen bizilaguna sorgina da eta helburu nagusia munduko izaki gaiztoe- na izatea da. Propek etxe bat hartzen du oinordetzan basoan eta, sorgi- naz gain, beste arazo batzuekin topo egingo du herritarrek ere ez baitute begi onez ikusten etxearen jabe berria. Etxea asko gustatzen zaionez borrokatzea erabakitzen du. Horretarako Propek lagun berri bat izango du alboan: Berta. Umorez jositako istorio hunkigarria.

2000, Danimarka 🕒 77 min. 🎬 Per Fly.
👤 Marrazki Bizidunak.



SHIN CHAN ETA SAMURAI TXIKIA

Samuraien legendak errealitate bihurtzen dira Shin Chanen istorio berri honetan. Japonia zaharrera egingo du bidaia Shin Chanek. Nahigabean 1574. urtean kokatzen da, klanen arteko borrokak nagusi diren garaian. Matabe izeneko samurai bakartiar bat ezagutu eta lagun egingo du. Bes- talde, Noharatarrak ere, garai horretan iritsiko dira galdutako bere semea- ren bila. Sinosuke bi klanen arteko borrokan aurkituko da eta handik ate- ratzeko bere bideak erabiliko ditu.


2000, Japonia 🕒 95 min. 🎬 Keiichi Hara.
👤 Marrazki Bizidunak.



DORAEMON ETA JOSTAILU LANTEGIA

Urruneko planeta batean dagoen hiri batera joango da Doraemon. Planea oso berezia da: jostailuak bizidunak dira. Magia eta fanta- siaz betetako planeta horretan imajinazioak ez du mugarik. Horre- lakoeta gertatu ohi den bezala ordea, bada gaizkilerik. Planeta horretako jostailuak lapurtu nahiko ditu bere laguntzaileekin bate- ra. Doraemonek, Nobitak, Gianek, Tsuneok eta Shizukak arrisku handi horri aurre egin beharko diote beraiek hain ongi dakiten bezala: bere azkartasuna eta zorrotasuna erabiliz.

2000, Japonia 🕒 95 min. 🎬 Tsutomu Shibayama.
👤 Marrazki Bizidunak.



TRIKI, TRAKA, TRON (05)

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharre- netakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatakoak dira. Gaurko proiektzio- an, beren abesti eta istorio barregarriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango duzu Gezalara hurbilduz gero.

2002, EH 🕒 60 min. 🎬 Txirri, Mirri eta Txiribiton.